



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2018ko UZTAILAREN 24ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2018ko uztailaren 24ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Koldobika Jauregi Zinkunegi Alkateordearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEORDEA : Koldobika Jauregi Zinkunegi

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Onintza Gorostidi Murua
Xabier Mugika Letamendia

Bere ezin etorria azaltzen dute: Uxue Etxebeste Eizagirre eta Jon Umerez Urrezola

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - 2018ko maiatzaren 29an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Alkizako udaletxeko garbitzailearen ordezkapenak egiteko lan poltsaren onspena, hala bada**
- 5. 2017ko Kontu Orokorren behin betiko onspena, hala bada.**
- 6. Txantxangorri aldizkarian herriko jaietako publizitatea jartzeko onspena, hala bada.**
- 7. Alkizako Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzuen esleipena, hala bada.**
- 8. Herriko jaietan egiten diren gastu justifikagarrien onspena, hala bada.**
- 9. 2018 ekitaldirako langileen ordainsariei buruzko Eudelek eginiko gomendioaren onspena, hala bada.**
- 10. Arrate irriatiak aurkezturiko aurrekontuaren onspena, hala bada.**
- 11. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari, 2018 urteko 3. Eta 4. Hiruhileko ekarpena burutzea, hala bada.**
- 12. Alkizako herrian lorezaintza lanak egiteko kontratuaren esleipena, hala bada.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

13. Alkizako udaletxean hainbat lan egiteko kontratuaren esleipena, hala bada.
14. Alkizako hilerriko teilatuan hainbat konponketa lan egiteko kontratuaren esleipena, hala bada.
15. GI-3630 Errepide ondoan (Azaldegia bailaran) hainbat lan egiteko kontratuaren esleipena, hala bada.
16. Frontoian hainbat konponketa lan egiteko obra esleipena, hala bada.
17. Alkizako ur hornidura hobetzeko proiektua idazteko kontratuaren esleipena, hala bada.
18. Alkizako saneamendua hobetzeko proiektua idazteko kontratuaren esleipena, hala bada.
19. Oporrak Bakean programaren onespena, hala bada.
20. Beste batzuk.
21. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2018ko maiatzaren 29ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

37/2018 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 12koa, Alkizako Udaleko Lehen Alkateordea den Koldobika Jauregi Zinkunegi zinegotziari, Alkatearen eskuordetzea 2018ko uztailaren 16tik 31ra bitartean (biak barne) ebazten duena.

BIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

OBBTKN	233,20
ANDERS GALERY	84,70
SOLRED	123,93
CALPARSORO INDUSTRIAL	75,65
ARGITU	161,23
TOLOMENDI	155,55
EBA ERKIZIA	1.794,64
ANTONIO ELOSEGUI	43,12
EUSKALTEL	100,70
DIONISIO ORMAZABAL	14,65
CORREOS	3,41
NORTEGAS	38,27
ACSOL	182,88
ACSOL	122,98
ACSOL	32,57
ACSOL	77,46
IBERDROLA	44,78
IZFE	1.989,25
IZFE	13,10
ASEVASA	7.260,00
ACSOL	119,77
ACSOL	46,05
ACSOL	91,83
ACSOL	102,10
ACSOL	38,57
NORTEGAS	4,90
LAU HAIZETARA	1.736,35
ZURIARRAIN ITURGINTZA	1.115,98
NORTEGAS	166,79
ACSOL	397,42
ULAH	562,47
ANTONIO ELOSEGUI	11,20
SEIKIN	747,05
GASOLEOS ALKORTA	18,15
MOVISTAR	98,16
MOVISTAR	75,43
MOVISTAR	98,06
MOVISTAR	74,82



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

EDURNE BENGOA	186,42
VECS APLICACIONES ELECTRICAS	181,50

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **18.569,44** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALETXEKO GARBITZAILEAREN ORDEZKAPENAK EGITEKO LAN POLTSAREN ONESPENA

Ikusirik Herrian zehar garbiketa lanak egiten duten udal langileen ordezkapenak egiteko lan poltsa bat osatu nahi duela Alkizako Udalak.

Ikusirik aipaturiko lan poltsa hori osatzeko, 2018ko ekainaren 13an deialdi bat egin zela, interesatuek izena emateko, azken eguna ekainaren 29a izanik.

Ikusirik, ordezkapenak egiteko lehentasuna, langabezian daudenak izango dutela.

Ikusirik, Lan-poltsaren ordena osatzeko izen guztien arteko zozketa egingo dela.

Ikusirik, Ordezkapenak egiteko lan-poltsaren ordena jarraituko dela eta rotatiboa izango dela.

Ikusirik, Ordezkapen kasu bakoitzean alde zuzenetik ziurtatuko da zerrendakoen artean zeintzuk dauden langabezian eta, ordenaren arabera, horiek izango dute lehentasuna langabezian ez dauden beste guztien aurretik; inor ez balego langabezian, besterik gabe, lan-poltsan izandako postua errespetatuko da.

Ikusirik, Lan poltsak urtebeteko iraupena izango duela.

Ondoren, Zozketari hasera ematen zaio, ondorengo emaitza duelarik:

1. A.B.U.A
2. M.K.M.A.
3. J.G.E.
4. N.B.
5. M.S.U.A



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

6. M.A.U.L.

Zozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENEA: Alkizako udaletxeko garbitzailearen ordezkapenak egiteko ondorengo lan poltsa osatzea:

1. A.B.U.A
2. M.K.M.A.
3. J.G.E.
4. N.B.
5. M.S.U.A
6. M.A.U.L.

Ordezkapenak egiteko lehentasuna, langabezian daudenak izango dute.

Ordezkapenak egiteko lan-poltsaren ordena jarraituko da eta rotatiboa izango da.

Ordezkapen kasu bakoitzean aldez aurretik ziurtatuko da zerrendakoen artean zeintzuk dauden langabezian eta, ordenaren arabera, horiek izango dute lehentasuna langabezian ez dauden beste guztien aurretik; inor ez balego langabezian, besterik gabe, lan-poltsan izandako postua errespetatuko da.

Lan poltsak urtebeteko iraupena izango du.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdun guzietan ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

2017KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzkoak, 62 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituz, Kontu Orokorra egin dela, ekitaldiko aurrekontuari buruzkoa, aparteko aurrekontuari nahiz ondasunei eta diruzaintzari buruzko operazio guztien adierazgarri dena. Kontuetako Batzorde Bereziaren txostena lortu ondoren, jendaurrean egoteko tramitean jarri dela, 2018 urteko ekainaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz, erreklamaziorik, konponbiderik edo oharpenik aurkeztu ez delarik.

Ikusirik espediente osoa Udalbatzarraren ezagupenean jarri dela.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Udalbatzarreko Lehendakariak emandako 2017 ekitaldiko Kontu Orokorra onestea.

BIGARRENA.- 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorraren espedientearen berri Kontuetako Hauzitegiari ematea.

SEIGARREN PUNTUA **TXANTXANGORRI ALDIZKARIAN HERRIKO JAIETAKO PUBLIZITATEA JARTZEKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik, Txantxangorri aldizkarian, Alkizako jaien publizitatea jarri nahi dela, horretarako eskatu delarik honen aurrekontua. Proposamenen artean, bi modulutako publizitatea jartzea egokiena dela erabakitzen delarik.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Alkizako jaien publizitatea Txantxangorri aldizkarian jartzea. Bi moduluko iragarkia jarriko delarik.

BIGARRENGOA.- Erabaki honen berri Belako publizitatea eta komunikazioari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA **ALKIZAKO UDALARENTZAT HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURARI BURUZKO AHOLKULARITZA ZERBITZUEN ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzua, Alkizako Udalean eskaintzen jarraitu nahi dela, asteen bi ordu Udaletxean dagokion zerbitzua eskainiaz.

Ikusirik, Eba Erkizia Brion arkitektoari aurrekontu bat eskatu zaiola, aipaturiko zerbitzua prestatzeko.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Eba Erkizi Brion arkitektoak aipaturiko aurrekontua aurkeztu duela, ondorengo diolarik:

“ALKIZAKO URDALARENTZAT HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURARI BURUZKO AHOHKULARITZA ZERBITZUEN LAN PROPOSAMENA

Proposamen honen helburua, Alkizako Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza gidatuko dituzten irizpideak zehaztea izango da.

1.-GARATU BEHARREKO LANAK

Egin beharreko lanak hurrengoak izango dira:

- *Herritarren hirigintza kontsultei arreta zerbitzua.*
- *Obren kontrola.*
- *Obra txikien baimenari buruzko espedienteen txostenak.*
- *Obra handien baimenari buruzko espedienteen txostenak.*
- *Sailkatutako jardueren baimenari buruzko txostenak.*
- *Jarduera salbuetsien baimenari buruzko txostenak.*
- *Planeamendu tresneri buruzko hirigintza txostenak.*
- *Gestio tresneri buruzko hirigintza txostenak.*
- *Hirigintza diziplinako txostenak.*
- *Segregazioei buruzko txostenak.*
- *Hirigintza balorazioak.*
- *Alkateak, udal bazkideek edo udal idazkaritzak eskatutako beste edozein motatako txosten edo azterketak egitea.*

•
Lan hauetaz gain, eta udalak eskaturik hirigintza aholkularitzarekin loturiko lan eta informazio bileretara joango da, bai udaletxean bertan edota kanpo administrazioetan, ala nola Diputazioan, Eusko Jaurlaritzan...

Era berean eta kasua balitz, obra eta hirigintzako udal batzordeetara joango da, udal bazkideek beraien erabaki hartzeetan aholkua emateko.

2.-LANTOKIA

Herritarrentzat aholkularitza zerbitzuak eta bestelako hirigintza lanak, astero bi orduz udaletxean egingo dira.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Denbora honetatik kanpo egin ezin diren txosten edo aholkularitza lanak, sinatzen duen arkitekto honen bulegoan egingo dira, eta gehienez, beraien eskaeratik bi aste barruan entregatuko dira.

Bilerei dagozkien beste lanak, udaletxean bertan edo dagokion administrazioan burutuko dira.

3.-ORDAINSARIA

Udaletxean hileru aholkularitza lanetik jasotako ordainsaria 545,13€ (BEZ-a gabe) izango da.

Ordu hauetatik kanpo gertatzen diren lanen ordainsaria, egindako lanordu kopuruetan eta joan-etorrietan erabilitako denboran neurtuko da, hileru 54,51€/orduko fakturatuz, ondoren dagokion BEZ-a gehituz. Hurrengo urteei dagokienez, kopuru hau “ kontsumo prezioen indizea”-aren arabera gehituko da.”

Ikusirik aipaturiko kontratua, kontratu txiki bat dela ez delako 15.000 eurotako gastua gainditzen.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Eba Erkizi Brion Arkitektoari, Alkizako Udalarentzat hirigintza eta arkitekturari buruzko aholkularitza zerbitzuaren kontratua esleitzea, urtebetez, 2018ko irailean hasiko delarik bere zerbitzua prestatzen. Astean bi orduz, Alkizako Udaletxean bere zerbitzua eskainiko duelarik, hilean 545,13 eurotako diru-kopuruaren truke. Aipaturiko ordutegi horretarik aparte, Udalak eskatutako lanak egiteagatik fakturako duen ordainsaria 54,51€/ordukoa izango da.

BIGARRENA: Eba Erkizia Brion Arkitektoari jakinaraztea, Alkizako Udaletxera bertaratu beharko duela dagokion kontratua sinatzera.

HIRUGARRENA: Jon Umerez Urrezola Alkate-Lehendakari jauna aipaturiko kontratua sinatzeko ahalmena ematea

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

HERRIKO JAIETAN EGITEN DIREN GASTU JUSTIFIKAGARRIEN ONESPENA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, Herriko festetan presazko hainbat ordainketa burutzen direla, Udaletxeak fakturak ordaintzeko jarraitzen duen prozedura ezin delarik erabili.

Aipaturiko arazo hauek saihesteko Udaletxeak, Jaietako zinegotziari, hau da, Uxue Etxebeste andreari 1.000 euro emango dizkio. Jaiak bukatu ondoren, Etxebeste zinegotziak, eginiko gastu guztien justifikazioa Udaletxeari aurkeztu beharko diolarik.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Uxue Etxebeste zinegotziari 1.000 euro ematea, herriko jaietan egiten diren presazko gastuak egiteko.

BIGARRENA: Uxue Etxebeste zinegotziari jakitera ematea, herriko jaiak bukatu ondoren, Udaletxe honetan, emandako diru kopuruaren gastuak justifikatu beharko dituela, dagokion frogagiriekin.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

2018 EKITALDIRAKO LANGILEEN ORDAINSARIEI BURUZKO EUDELEK EGINIKO GOMENDIOAREN ONESPENA, HALA BADA

Udalbatzak, aho batez, gaia mahai gainean uztea erabakitzen du.

HAMARGARREN PUNTUA

ARRATE IRRATIAK AURKEZTURIKO AURREKONTUAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Arrate irratiak S.L.-k igorritako 2018 urteko Alkizako jaietarako aurrekontua, non aste batean, egunean bi kuina emateagatik 100€+BEZ ko balioa izango duen aurrekontua igortzen duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Arrate Irratiak S.L. –k igorritako 2018 urteko Alkizako jaietarako aurrekontua onestea, bere kostua 100 euro+BEZ izango delarik. Bertan aste batean egunean bi kuina eskainiko dituztelarik.

HAMAIKAGARREN PUNTUA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI, 2018 URTEKO 3. ETA 4. HIRUHILEKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2018ko uztailaren 4an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2018 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 21.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 16.000,00 euro
- Kultura: 5.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 21.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2018 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 16.000,00 euro
- Kultura: 5.000,00 euro

BIGARRENA.- 21.000,00 eurotako gastua onartzea.

HAMABIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRIAN LOREZAINZTA LANAK EGITEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA

Udalbatzak, aho batez, gaia gai zerrendatik ateratzea erabakitzen du, aurreko udalbatzarrean erabaki zelako.

HAMAIRUGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALETXEAN HAINBAT LAN EGITEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Udaletxean hainbat lan egiteko asmoa dagoela, udaletxean irisgarritasuna bermatzeko asmoarekin.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik lan hauek egiteko LAU HAIZETA eta ELECTRICIDAD ZIZURKIL enpresei aurrekontua eskatu zaiela, igeltseritza eta elektrizidade lanak direlako. Hauen aurrekontuak ondorengoak izanik:

- LAU HAIZETARA: 8.286,09 euro
- ELECTRICIDAD ZIZURKIL: 1.149,17 euro

Ikusirik, kontratu txiki baten aurrean aurkitzen garela, obra kontratua 40.000 euro baino gutxiagoa izanik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako udaletxean hainbat lan egiteko kontratua LAU HAIZETARA eta ELECTRICIDAD ZIZURKIL enpresei esleitzea, ondorengo diru kopuruetan:

- LAU HAIZETARA: 8.286,09 euro
- ELECTRICIDAD ZIZURKIL: 1.149,17 euro

BIGARRENA: Aipaturiko gastuak 2018 aurrekontuetako 1 0000.622.150.00.01 partidaren kargura egitea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri LAU HAIZETARA eta ELECTRICIDAD ZIZURKIL enpresei ematea.

HAMALAU GARREN PUNTUA

ALKIZAKO HILERRIKO TEILATUAN HAINBAT KONPONKETA LAN EGITEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA

Ikusirik Alkizako hilerriko teilatuan hainbat lan egiteko asmoa dagoela, itoginak daudelako.

Ikusirik lan hauek egiteko LAU HAIZETA enpresari aurrekontua eskatu zaiola, igeltseritza lanak direlako. Honen aurrekontua ondorengoak izanik:

- LAU HAIZETARA: 4.168,45 euro

Ikusirik, kontratu txiki baten aurrean aurkitzen garela, obra kontratua 40.000 euro baino gutxiagoa izanik, eta enpresa honek urte guzian ez duelarik Alkizako Udaletxearekin egindako kontratuak diru-kopuru hori gainditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako hilerriko teilatuan hainbat konponketa lan egiteko kontratua LAU HAIZETARA enpresari esleitzea, ondorengo diru kopuruan:

-LAU HAIZETARA: 4.168,45 euro

BIGARRENA: Aipaturiko gastuak 2018 aurrekontuetako 1 0000.622.164.00.01 partidaren kargura egitea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri LAU HAIZETARA enpresari ematea.

HAMABOSTGARREN PUNTUA

GI-3630 ERREPIDE ONDOAN (AZALDEGI BAILARAN) HAINBAT LAN EGITEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Udalbatzak, aho batez, gaia gai zerrendatik ateratzea erabakitzen du, aurreko udalbatzarrean erabaki zelako.

HAMASEIGARREN PUNTUA

FRONTOIAN HAINBAT KONPONKETA LAN EGITEKO OBRA ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako frontoian hainbat lan egiteko asmoa dagoela, itoginak daudelako.

Ikusirik lan hauek egiteko LAU HAIZETA enpresari aurrekontua eskatu zaiola, igeltseritza lanak direlako. Honen aurrekontua ondorengoak izanik:

-LAU HAIZETARA: 768,35 euro

Ikusirik, kontratu txiki baten aurrean aurkitzen garela, obra kontratua 40.000 euro baino gutxiagoa izanik, eta enpresa honek urte guzian ez duelarik Alkizako Udaletxearekin egindako kontratuak diru-kopuru hori gainditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako frontoian hainbat konponketa lan egiteko kontratua LAU HAIZETARA enpresari esleitzea, ondorengo diru kopuruan:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

-LAU HAIZETARA: 768,35 euro

BIGARRENA: Erabaki honen berri LAU HAIZETARA enpresari ematea.

HAMAZAZPIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UR HORNIDURA HOBETZEKO PROIEKTUA IDAZTEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako ur hornidura hobetzeko asmoa duela Alkizako udalak, dagoen azpiegitura zaharkituta aurkitzen delako.

Ikusirik lan hauek egiteko lehenik dagokion proiektua egin behar dela, horretarako GILDER INGENIEROS-i aurrekontu bat eskatu zaio. Honen aurrekontua ondorengoak izanik:

-GILDER INGENIEROS: 8.400,00 euro

Ikusirik, kontratu txiki baten aurrean aurkitzen garela, zerbitzu kontratua 15.000,00 euro baino gutxiagoa izanik, eta enpresa honek urte guzian ez duelarik Alkizako Udaletxearekin egindako kontratuak diru-kopuru hori gainditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako ur hornidura hobetzeko proiektua egiteko kontratua GILDER INGENIEROS enpresari esleitzea, ondorengo diru kopuruan:

-GILDER INGENIEROS: 8.400,00 euro

BIGARRENA: Aipaturiko gastuak 2018 aurrekontuetako 1 0000.623.160.00.02 partidaren kargura egitea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri GILDER INGENIEROS enpresari ematea.

HEMEZORTZIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO SANEAMENDUA HOBETZEKO PROIEKTUA IDAZTEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako saneamendua hobetzeko asmoa duela Alkizako udalak, dagoen azpiegitura zaharkituta aurkitzen delako.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik lan hauek egiteko lehenik dagokion proiektua egin behar dela, horretarako GILDER INGENIEROS-i aurrekontu bat eskatu zaio. Honen aurrekontua ondorengoak izanik:

-GILDER INGENIEROS: 5.800,00 euro

Ikusirik, kontratu txiki baten aurrean aurkitzen garela, zerbitzu kontratua 15.000,00 euro baino gutxiagoa izanik, eta enpresa honek urte guzian ez duelarik Alkizako Udaletxearekin egindako kontratuak diru-kopuru hori gainditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako saneamendua hobetzeko proiektua egiteko kontratua GILDER INGENIEROS enpresari esleitzea, ondorengo diru kopuruan:

-GILDER INGENIEROS: 5.8400,00 euro

BIGARRENA: Aipaturiko gastuak 2018 aurrekontuetako 1 0000.623.160.00.02 partidaren kargura egitea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri GILDER INGENIEROS enpresari ematea.

HEMERETZIGARREN PUNTUA **OPORRAK BAKEAN PROGRAMAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik, aurten ere Tolosako Udalak aurten ere Oporrak Bakean programa antolatu duela, programa honen babesean Saharako hainbat neska-mutil etorriko dira Tolosaldeako familietara uda-aldia igarotzea, bere osasuna eta garapena hobetzeko helburu nagusiarekin.

Ikusirik, Alkizako Udalak ere parte hartu nahi duela programa horretan.

Ikusirik, programa hori gauzatzeko hitzarmen bat prestatu dela Tolosako Udalaren eta Alkizako Udalaren artean sinatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA: Alkizako Udalak, Oporrak Bakean programan parte hartzeko onespena ematea.

BIGARRENA: Alkizako Udalak, Oporrak Bakean programarako 1.900,00 euro aurreikustea, programak sortarazten dituen gastuekin laguntzeko. Aipaturiko gastua egiteko onespena ematea.

HIRUGARRENA: Alkizako Udalak eta Tolosako Udalak Oporrak bakean programa aurrera eramateko prestatutako hitzarmena onestea. Jon Umerez, Alkizako Alkatea ahalmentzen delarik aipaturiko hitzarmena sinatzeko.

HOGAIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.